

TUTORETZA PLANA

SARRERA

Tutoretza planaren bitartez, bizitza akademikorako zein pertsonalean garapen egokia izateko beharko dituzten gaitasunak eskuratzen lagundu nahi ditugu ikasleak.

Tutoreek ikasleak bide horretan laguntzeko egin beharreko zereginak jasotzen dira Tutoretza Plan honetan.

Zereginak hiru esparrutan garatzen dira:

- Zuzenean ikasleekin, taldeka zein banaka.
- Irakasleekin.
- Ikasleen familiarekin edo legezko arduradunekin eta beste gizarte eragileekin.

HELBURUAK

Tutoretza antolatzeak, tutoreak ikasleekin, irakasleekin eta familiarekin eginbeharrekoak zehaztuz.

- Ikasleekin:
 - Taldean eta ikastetxean integratzeko, lankidetzan, elkarren arteko laguntza eta besteekiko errespetua sustatuz.
 - Ikasketa prozesua jarraitzeko eta, behar izanez gero, laguntza sustatzeko.
 - Une erabakiorretan aholku emateko.
 - Taldeko ordezkariarekin lankidetzan ikasleen eskaerak, kezkak eta iradokizunak bideratzeko.
- Irakasleekin:
 - Ikasleei buruzko informazioa partekatzeko, zailtasunak aurreikusiz.
 - Ikasleen beharrak aztertu eta erantzunak proposatzeko.
 - Ikasleen jarraipena egin eta ebaluazioa koordinatzeko.
- Familiarekin:
 - Ikastetxearen eta etaparen informazioa emateko.
 - Haiengandik informazioa jasotzeko.
 - Ikaslearen hezkuntza prozesuaren berri emateko, eta elkarrekin lan egiteko.
 - Une erabakiorretan aholku emateko.

IKASLEEN GAITASUNAK

Ikasleen gaitasunen garapena bultzatuko dugu, ikasleak konpetenteak izan daitzen norbera izateko, komunikatzeko, gainerakoekin bizitzeko, ikasteko, pentsatzeko eta ekiteko.

- Gaitasunak tutoretzan:
 - Nork bere burua eta besteekiko harremanak zuzentasunez aztertzea, bai tutorearekin bai lankideekin norberaren jokaera eta horein ondorioei buruz gogoeta eginez.
 - Jolasean eta lanean errespetuan oinarritutako harremanak izatea, komunikaziorako trebetasunak garatuz eta besteekin esperientziak partekatzeko beharra baloratuz.

- Eskolako lanak nahiz eskolaz kanpoko jarduerak betetzea arauak errespetatuz eta erabakietan parte hartuz.
- Gizarte bazterkeria gertaerei buruz norbere ikuskera azaltzea, kaldeak sortzen dituzten egoeren aurrean kritiko agertuz eta justizia, berdintasuna, bakea eta elkartasuna bezalako balioei garantiza emanez.
- Ikaskuntza prozesua jarraian begiratzea eta deskribatzea emaitzak aztertuz eta, behar denean hobetzeko aldaketak proposatuz.
- Etorkizuneko proiektu pertsonala aurreikustea, errealitate soziolaborala eta norberaren ezagutza kontuan hartuz.

TUTORETZAN IKASLEEKIN LANTZEKO EDUKIAK

- Ni eta besteak
 - Norberaren ezagutza
 - Elkarren arteko ezagutza
 - Taldearen antolakuntza
 - Elkarbizitza
- Ni eta ikasketak
 - Antolamendua eta planifikazioa
 - Errendimendua eta emaitzak
- Ni eta bizitza proiektua
 - Informazioa bilatzea: ikasketak, lanbideak, aisia...
 - Erabakiak hartzea

PLANGINTZA

- Ikasleekin
 - Tutoretza saioen oinarritzko programazioa (ikus eranskina) ikasleekin adostuko dugu, haien proposamenak ere aztertzeko. Halere, beti egongo dira aurreikusi gabeko gaiak eta asteroko koordinazio bileretan zehaztuko ditugu horiek.
 - Taldearekin lana egiteaz gain, banakako elkarriketak ere egingo dira beharrezkoak diren zenbait unetan.
- Irakasleekin
 - Ikasturtean zehar taldeko irakasleekin koordinazio bilerak izango ditu tutoreak bai taldearen eta baita ikasle bakoitzaren jarraipena egiteko.
- Orientatzailearekin
 - Maila bereko tutoreak asteroko bilerak izango dituzte orientatzailearekin, tutoretza lana koordinatzeko.
- Familiartekoekin
 - Gurasoeekin ere kurtsoan zehar zenbait bilera/komunikazio izango ditu tutoreak elkarrekin lan egiteko.
- Beste gizarte eragilekin
 - Orientatzailearen laguntzarekin koordinazio bilerak izango ditu tutoreak zientziaz gizarte eragileekin kasu berezietan eta beahrran arabera: gizarte zerbitzuak, psikologoak, hezitzaileak, aholkulariak...